


# HAZTERIA EDO ESKABIOSIA

## ZER DA?

Hazteria akaro mikroskopiko batek sortutako gaixotasun kutsakorra da.

Infekzio ohiko bat da, mundu osoan dago eta edonori eragin diezaioke.



“ AZKURA JASANEZINA SENTITZEN DUT, BATEZ ERE GAUETAN ETA BEROA EGITEN DUENEAN ”

Ohikoa da azkura bizia sentitzea, batez ere gauean zehar, eta bereziki eskuetako eta oinetako behatzen artean, eskumuturretan, ukondoetan, abdomenean, izterretan, genitaletan eta tolesturetan (besapeetan, titien azpian, ipurmasailen artean, etab.). Hatzen artean edo eskumuturretan zimur lineal txikiak ager daitezke, baita larruazaleko bestelako lesio motak ere.

## NOLA KUTSATZEN DA?

Akaro honek ez du ez salto ez hegan egiten. Edonor kutsa daiteke, larruazalen arteko kontaktuaren bitartez, gutxienez 15-20 minutuz egon ostean; edo objektu pertsonalak ukituz gero (arropa, eskuoihalak, oheko arropa...).

Kontaktuaren ondoren, 2-6 aste igaro daitezke sintomak hasi arte (azkura). Sintomarik gabeko epean ere kutsakor izan daiteke.

Akaroak 4-7 egun irauten du bizirik larruazaletik kanpo, tenperaturaren eta hezetasunaren arabera.

Bizikideen edota sexu-bikoteen arteko transmisioa ohikoa da.

Oro har, ez da gaixotasun larria izaten, baina erabat osatzeko ezinbestekoa da osasun-langileen jarraibideak zorrotz betetzea.

## ZEIN DA TRATAMENDUA?

Egoera bakoitzaren arabera, tratamendua ezberdina izan daiteke.

Larruazalean ager daitezkeen lesioak behatu tratamenduaren ondorengo **4 asteetan**

Bai kutsatutako pertsonak bai haren kontaktu estu guztiek jaso beharko dute tratamendua.

Kontaktu estuak: bizikideak (etxeke garbitzaileak eta ohiko bisitak barne) eta sintomak hasi baino 4-6 aste lehenagoko epean kutsatutako pertsonaren larruazalarekin kontaktu estua izan duten pertsonak (bikoteak, zaintzaileak...).


Bizikide guztiek tratamendua **ALDI BEREAN** egin behar dute, azkura izan ala ez.

Kontaktuek tratamendua betetzen ez badute, **kutsatze berriak** egotea oso ohikoa izaten da, baita jada tratamendua jaso duten pertsonengan ere.

# TRATAMENDU PERTSONALA

## BASELINA SUFREZTATUA %6

Baselina 3 gauez jarraian eman behar da eta astebetera errepikatu.

- 1 Arratsalde/gauean dutxatu eta ordubete itxaron krema eman aurretik. Gorputzaren tenperatura erregulatzeko eta ondo lehertzeko beharrezkoa da.
- 2 Eskuetako eta oinetako azazkalak moztu. 

- 3 **GORPUTZ OSOAN** zehar eman krema, aurpegian eta buruan izan ezik. Masailezurretik hasita beherantz joan, hurrengo eremuak azpimarratuz:
  - Belarrien atzealdean
  - Genitaletan
  - Eskuetako eta oinetako azazkalen azpian
  - Hatzen eta behatzen tartean
  - Orkatiletan
  - Ipurmasailen tartean

Jarraibideak alda daitezke, jarraitu medikuaren argibideak.

Norbera iristen ez den eremuetarako eskatu laguntza beste pertsona bati.

**3 URTEK BEHERAKO HAURRAK EDO OHEAN DAUDEN PERTSONAK:**  
Aurpegian edota buruan lesioak izanez gero, krema bertan ere aplikatu, beti ere begien eta ahoaren ingurua saihestuz.

- 4 Krema eman ondoren, EZ garbitu eskuak.
- 5 Krema 24 ORDUZ mantendu gorputzean.

1.EGUNA	2.EGUNA	3.EGUNA	4.EGUNA
ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	GOIZA arropa aldatu + arropa eta etxea garbitu (3.orria)  ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	ARRATSALDE/GAUA dutxa + hidratatzeko krema
8.EGUNA	9.EGUNA	10.EGUNA	11.EGUNA
ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	GOIZA arropa aldatu + arropa eta etxea garbitu (3.orria)  ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	ARRATSALDE/GAUA dutxa + baselina sufreztatua	ARRATSALDE/GAUA dutxa + hidratatzeko krema

## IBERMEKTINA

Batzuetan, zure medikuak ahotik hartzeko ibermektina erabiltzea gomenda diezazuke, bakarrik edo baselina sufreztatuarekin batera.

Dosi bakarra hartu behar da (pilula bat edo gehiago izan daitezke, denak une berean), ahal dela afalorduan, hartu aurretik eta ostean 2 orduko baraualdia mantenduz; astebetera dosia errepikatu egingo da. Pauta aldakorra izan daiteke, jarraitu zure medikuaren argibideak.

## LARRUAZALAREN ZAINKETAK

Tratamenduaren ostean, 2-4 aste iraun dezake azkurak. Tratamenduen artean, larruazala hidratatzeko krema egunero erabili behar da. Sintomak arintzeko helburuarekin zure medikuak medikazioa gomenda diezazuke.


## NIRE INGURUKO ZAINKETAK

### ARROPAREN TRATAMENDUA



Tratamendu pertsonala egin eta hurrengo goizean, aurreko 3-4 egunetan erabilitako arropa (arropa, eskuoihalak, izarak...) tratatu behar da:

- Garbigailuan garbitu 60°C-tan, 10 minutuz, hondatu gabe garbitu daitekeen arropa; edo lehorgailua erabili 20 minutuko ziklo bero batean.
- Gainerako arropa delikatua edo tenperatura altuan garbitu ezin dena: plastikozko poltsa batean sartu eta 7 egunez itxita eduki.



TRATAMENDUAREN HURRENGO EGUNEAN,  
AZKENALDIAN ERABILI EZ DEN  
ARROPA JANTZI

### ALTZARIAK



Larruazalarekin kontaktu zuzena izan duen tapizatua (sofak, autoko eserlekuak, kuxinak, peluxeak...): xurgagailua pasa edo tratamendua hasi ondorengo 7 egunetan kontaktua saihestu.

EZ tratatu:  
Mahai-tresnak,  
sukaldeko  
tresnak,  
gortinak,  
gainazalak...

INTSEKTIZIDEN ERABILGARRITASUNA EZ DAGO FROGATUA

### ESKOLA ETA LAN-EREMUA

Tratamendua egin eta 12 orduetara hazteriak kutsakor izateari uzten dio.

Tratamenduaren 1.aplikazioa egin ondoren, normaltasunez joan zaitezke eskolara edo lanera (gauz egiten bada, hurrengo goizean). Eremuren batean (eskoletan edo egoitzetan) agerraldia gertatuz gero, beste neurri mota batzuk adieraz litezke.

Behin tratamendua jasota, berriro ere kutsatzea saihesteko,  
**tratamendua oraindik jaso ez duten**  
familia edo inguruko pertsonekin kontaktua berriz izatea ekidin.